

EZAGUTU FORMULA STUDENT MOTORSPORT TALDEA BARRUTIK!

- **Jakintza adarra:** Ingeniaritza eta Arkitektura
- **Campusa:** Araba
- **Ikastegi antolatzailea:** Vitoria-Gasteizko Ingeniaritza Eskola
- **Gradua/k:**
 - Automobilgintzaren Ingeniaritza - DUALA
 - Ingeniaritza Elektronikoa
 - Ingeniaritza Kimikoa
 - Ingeniaritza Mekanikoa
 - Gradu Bikoitza: Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza + Kudeaketaren eta Informazio Sistemen Informatikaren Ingeniaritza
 - Gradu Bikoitza: Ingeniaritza Mekanikoa + Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza
 - Gradu Bikoitza: Ingeniaritza Mekanikoa + Industria Elektronikaren eta Automatikaren Ingeniaritza
 - Kudeaketaren eta Informazio Sistemen Informatikaren Ingeniaritza
- **Garapen-lekua (helbidea):** Vitoria-Gasteizko Ingeniaritza Eskola.
Nieves Cano kalea, 12 Vitoria-Gasteiz

1. JARDUERAREN DESKRIBAPEN LABURRA

Ezagutu lehiaketa-talde bat barrutik! Gure lantegian Formula estiloko ibilgailuetan osagaiak diseinatzeko sarrera egin ahal izango duzu, bere kalibrazio eta kontrolarekin. Gainera, hainbat material berritzaileen erabilerak (karbono-zuntza edo kevlar) aerodinamikan edo egituren eta haren geometrian nola eragiten duen ezagutuko duzu. Hori guztia gure lehiaketa-autoak erreferentzia gisa erabiliz egingo dugu, zuzenean nola funtzionatzen duten ikusteko.

2. LANDUKO DIREN GAIK/EDUKIAK

- Osagaien diseinua
- Material berritzaileen erabilera
- Lehiaketarako ibilgailu elektrikoaren egitura.

3. EGINGO DIREN EKINTZAK

Formula Student Vitoria-Gasteiz taldeak honako hau egingo du:

- 1- Azalpena, unibertsitate mailako motorsport lehiaketako talde batek barrutik nola funtzionatzen duen ezagutarazteko.
- 2- Autoaren funtsezko pieza batzuk ordenagailuz diseinatzea.

- 3- Diseinatutako piezen azterketa aerodinamikoa.
- 4- Diseinatutako piezen azterketa estatikoa.
- 5- Hainbat materialetako (karbono-zuntza, esaterako) probetekin eta piezekin testak egitea.

4. EGUTEGIA ETA PLAZAK

Data	Hizkuntza	Txanda	Ordua	Plazak
2026-01-15	Elebiduna	Goizez	11:45-13:15	15
2026-01-16	Elebiduna	Goizez	10:00-11:30	15
2026-01-16	Elebiduna	Goizez	11:45-13:15	15